# Neguko denbora-pasak




Zein elementu dago bikoiztuta?

# Dermioen letra zopa



| | | | | | | | | | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Y | W | N | A | U | E | R | A | E | Z | T | N | U | K | E | R | R | E | V | I |
| V | Y | X | P | Z | E | S | Y | N | B | R | E | H | I | F | W | X | E | Q | N |
| T | R | I | G | G | M | T | X | O | P | O | R | D | I | Y | A | Y | T | Q | S |
| L | Q | O | A | C | D | P | O | I | J | N | T | U | G | I | U | B | E | O | X |
| A | E | P | L | A | B | A | X | T | E | D | I | B | E | A | N | F | I | Z | T |
| Q | T | X | A | A | W | X | O | N | W | D | A | R | R | I | U | R | D | I | N |
| H | I | R | R | O | Z | B | Q | E | R | R | A | K | A | R | T | O | P | N | H |
| R | D | I | T | Z | E | U | J | H | Z | O | R | R | E | B | C | D | Y | E | M |
| C | O | I | Z | I | O | O | A | K | T | A | R | K | A | V | A | X | N | U | M |
| Z | I | E | A | M | U | X | T | U | R | B | I | Z | K | A | R | L | R | G | W |
| M | T | S | B | O | K | A | K | V | L | L | I | M | H | S | A | U | E | U | E |
| B | X | H | A | T | E | U | R | I | M | J | I | L | X | S | B | R | S | P | Z |
| K | I | D | Z | P | X | N | M | Y | P | O | K | R | X | I | R | A | F | F | E |
| N | K | G | T | F | P | L | A | N | O | V | L | Z | B | E | R | G | A | E | C |
| S | I | A | A | S | O | O | N | T | E | W | Z | R | L | R | T | O | J | F | T |
| T | W | U | R | S | W | Z | S | C | Q | X | V | R | E | T | R | Q | Z | V | K |
| E | J | B | R | W | P | J | U | G | A | R | K | A | B | U | R | U | G | D | Q |
| T | X | E | A | T | E | O | S | L | U | S | N | J | X | E | P | M | L | D | P |
| I | R | A | I | G | A | M | I | K | Z | X | L | A | P | I | Z | H | P | B | X |
| J | E | H | I | W | N | O | K | A | R | O | R | C | X | B | V | Z | V | U | R |

Amuxturbizkar
Arriurdin
Auzalor
Berroz
Bidetxabal
Epela
Erlo
Errekuntzea
Galartzabaztarra
Gaubea
Idoitxiki
Izoa
Mirueta
Murubi
Orakon
Potraka
Sulsoeta
Txopordi
Ugarkaburu
Usarre

# Sudokuak





# ***Mel eta ehun goibel*** Castillo Suarez eta Morkots

Elurra ausarki egiten zuen toki batean, bazen behin ❶ inuit bat Mel deitzen zena. Neguan iglu batean bizi zen, izotzez egindako etxe batean; udaro, berriz, larruzko etxe batera aldatzen zen bere ❷ familiarekin.

Ez zuen lagun askorik bere herriko haur bakarra zelako.

Mel aspertu egiten zen arrantzan. Gorroto zuen orduak eta orduak ematea ❸ izotz puska baten gainean, zain.

Batzuetan ❹ hartz zuria hurbiltzen zitzaion, ordea, eta besarkatzen zuen ilezko bola bat osatuz. Orduan hotza desagertu eta bero goxo batek inguratzen zituen biak.

Melen begiak txiki-txikiak ziren, ia ikusezinak, eta bere ❺ bekainak luzeak eta lodiak. Horrela, eguzkiaren izpiek elurrean sortutako distirak ez zion minik ematen.

❻ Txikia eta lodia zen Mel, bere herriko guztiak bezala, meheek eta altuek okerrago jasaten dutelako hotza, hori gauza jakina da.

Melek ez zekien zer zen belarra, zuhaitza edo lorea, ez zituelako inoiz ikusi.

Melek ez zekien zer zen autoa, kayakez edo leraz joaten zelako hara eta hona.

Melek ez zekien zer zen ❼ makina bat.

Mel eta ehun goibel deitzen zuten denek, bere gaineko zerua goibeltzen zelako beti. Melek uste zuen bere erruz makurtzen zela eguraldia. Berak ekartzen zituela elur ❽ erauntsiak.

Egun batean, elurra hasi zuen inoiz baino gogo handiagoarekin. Elur lumak lodi-lodiak ziren, txorien gisakoak eta denek, animaliek zein pertsonek, babesera joan behar izan zuten.

Melek pentsatu zuen iritsi zela joateko eguna: goibel guztiak bere atzetik joanen ziren eta hobetuko zen eguraldia bere ❾ herrian. Lo handia egin ondotik, bere puskak bildu, eta abiatu zen eguzkiaren atzetik eta elurra bezain isilik.

Melek entzuna zuen toki epeletan bideak beltzak zirela, elurrik eta ❿ izotzik gabekoak, makina batek kentzen zuelako gaineko elur izara zuria. Melek, ordea, ez zekien zer zen makina bat. Ez zekien ere zer zen elurra kentzeko makina bat.

Elur-haizeak ekarrita beharbada, Mel eta ehun goibeli elur-orein bat azaldu zitzaion bidera: Goibelak zure atzetik baldin badoaz, ni ere joanen naiz zurekin.

Melen gogoa elurra kentzeko makinak ikusteko handitzen eta handitzen ari zen, maldan ⓫ behera heldu den elur-bolaren antzera.

Bidean aurrera egiten ari zirela, baso batean sartu ziren. Mel eta ehun goibeli ezpainetara etorri zitzaizkion zuhaitza, belarra eta ⓬ lorea hitzak. Elur-oreinak, parajearen ederra ikusita, bertan geratzea erabaki zuen.

Mel eta ehun goibel zuhaitz baten burura igo zen. Bitartean haizeak goibelak iparralderantz bulkatu zituen, eta ⓭ dantzan bueltatu ziren beren sorterrira.

Zuhaitz puntan zegoela ikusi zuen Melek lehendabiziko aldiz auto bat eta autoa hitza ahora etorri zitzaion. Mantso-mantso zihoan errepide beltzetik, elurra kentzeko makina baten atzetik. Makina ⓮ gatza botatzen ari zen errepide beltzean. Elurra kentzeko makina ahoskatu zuen Melek lehendabiziko aldiz.

Baina Melek arrangura handia sentitu zuen bere bihotzean: Badakite etorri naizela paraje honetara eta nirekin goibelak heldu direla, eta, haiekin, elur maindirea.

Goibelak urruti zeuden, ordea. Eta elur makinak eta autoak aitzinera egin zuten, bata bestearen ondotik.

Esaten dutenez, baso hura ez zen inoiz gehiago ⓯ zuritu.

❶ animalia, pertsona, inuit
❷ lagunekin, familiarekin, eskiekin
❸ izotz, harri, putzu
❹ txakur, hartz, orkatz
❺ bekainak, oinak, hatzak
❻ Handia eta argala, Txikia eta lodia, Txikia eta argala
❼ fabrika, makina, bizikleta
❽ erauntsiak, malutak, bolak
❾ etxean, herrian, auzoan
❿ harririk, malkorrik, izotzik
⓫ behera, gora, gora-behera
⓬ landarea, lorea, larrosa
⓭ korrika, txilipurdika, dantzan
⓮ azukrea, eztia, gatza
⓯ Gorritu, horitu, zuritu





# Non daude
# Sakanako elizak?







Arruazu




Iturmendi




Lizarragabengoa




Egiarreta




Dorrao




Altsasu




Lakuntza




Bakaiku

# Gurutze-grama









## Horizontalak

**2.** Gimnasia Erritmikoko taldea.
**4.** ... Olaberria argazkiko Arakilgo alkatea.
**6.** ... Suarez euskaltzain oso izendatu duten sakandarra.
**8.** '... erdi' Ainhoa Ramirez de Aldaren ipuin ilustratua.
**10.** ... Berriak 25 urte bete dituen Sakanako banda.
**11.** Antzinako aztarnak agertu diren Olaztiko lezea.
**16.** Bakaikuko herri kooperatiba.
**17.** Urbasako ... kotxe lasterketa.
**20.** Joseba ... Lau eta Erdiko txapelduna.
**22.** ... Arregi klinika psikogeriatrikoa.
**23.** Jose Mari ... saskibaloi arbitroa.
**24.** Sakanako haritzekin itsasontziak egiten dituen faktoria.
**25.** ... Ollo argazkiko Altsasuko alkatea.

## Bertikalak

**1.** Iosune ... Munduko Karate txapelketan brontzea.
**3.** Festetan zortzikoa berreskuratu duen herria.
**5.** Arakilgo gaztelua.
**7.** Altsasuko gazte gunea.
**9.** Dos ... Iturmendin fusilatu zuten koronela.
**12.** Irurtzungo gazte elkartea.
**13.** ... Trail Etxarri Aranazko lasterketa.
**14.** Aitziber ... argazkiko 'Benetan zabiz?' podcasteko kazetaria.
**15.** ... Uribe argazkiko ilustratzailea.
**18.** Arbizuko jauregia.
**19.** Markos ... Enduro Espainiako txapelduna izan den argazkiko motor gidaria.
**21.** Sakanako herririk populatuena.



## Bilatu 5 desberdintasunak



# **Sukaldeko tresnak**
# Sakanako hizkeran




7. araiztga
   zartagia

2. zieelt
   eltzie

5. aelikutb
   katilube

3. exprirat
   pitxerra

1. blaaan
   labana

6. sbeau
   basue

8. lafraet
   flatera

4. arkxoe
   koxera

# Lotu esanahi bereko hitzak

| | |
|---|---|
| 1. Bultzatu | 10 Urria |
| 2. Higuindurik | 18 Mara-mara |
| 3. Zeille | 11 Saguzahar |
| 4. Ahitu | 12 Babarrun |
| 5. Idergi | 9 Bidezidorra |
| 6. Miyeluze | 16 Bits |
| 7. Gider | 13 Saskitxo |
| 8. Katalingorri | 6 Hitzontzi |
| 9. Xenda | 19 Irakurri |
| 10. Lastaila | 4 Akabatu |
| 11. Iñerexagu | 5 Ilargi |
| 12. Alubi | 1 Bulkatu |
| 13. Jaskitxo | 17 Horixe |
| 14. Geizteinkei | 8 Marigorringo |
| 15. Itxesu | 20 Ziztatu |
| 16. Apar | 15 Itsaso |
| 17. Oixe | 7 Kirten |
| 18. Fara-fara | 3 Zaila |
| 19. Leittu | 14 Gaiztakeri |
| 20. Piketu | 2 Asperturik |

# Hitz ezkutua







(1) B U F A **N** D A
T X O K O L A T **E** A (2)
(3) **G** A L T Z E R D I A
E S K U L A R R **U** A (4)
(5) T X **A** M A R R A










Zein hitz dago ezkutatuta?

**NEGUA**



# Urte berri on!

Erantzunak urtarrilaren 9an
www.guaixe.eus-en